

<i>Berdintasun zerbitzua</i>		<i>Getxoko Udala</i>
Gaia: BERDINTASUN KONTSEILUAREN BILERA		

Bileraren datuak:

Data: 17-01-2019

Lekua: RKE

Ordutegia: 16:30etik 17:30era

Bertaratuak:

Bilgune Feminista: Uxune Iriondo Urbiztazu
Roda: Clara Lorenzo Quevedo
Ciudadanos-Herritarrak: Carlos Escalera Lana
EAJ-PNV: Elena Coria Yanguas
GUK: Susana Andollo Gonzalez
Udal Talde Sozialista: Josefina García Palacio
Talde Popularra: Susana de Cos Yañez
ELA: Elvira Lemona Díaz
Berritzegunea: Rosario Franco Soria
Eskuz-esku: Isabel Perez Ares
Gizatiar: Begoña Bas Fernandez
Lehendakaritza: Keltse Eiguren Alberdi
Idazkaria: Bego García Martínez

Bertaratu ez direnak:

Emakumeon Ahotsa

EH Bildu

Gai zerrenda

- Aurreko akta onestea
- Azaroak 25. Balorazioa

- Martxoak 8
- Galde-eskeak

Aurreko akta onestea

Begoña Bas andreari, Gizatiar elkarteko ordezkariari, ongietorria eman zaio. Hemendik aurrera Marga ordezkatu du Batzordean.

Aho batez onartu da aurreko bilerako akta.

Azaroak 25. Balorazioa

- Indarkeriari aurre egin dioten edo oraindik ere aurre egin behar dioten emakumezkoak omentzeko ekintzaren berri eman du berdintasun arloko teknikariak, indarkeria jasan duten edo jasaten ari diren emakumezkoek aintzatetsiak izateko duten eskubidearen ingurumarian: "Aulki bat eraildako emakume bakoitzeko".

Ekintza hori normaltasunez egin zen Areetako Geltoki plazan azaroaren 19an, eta 100 lagun baino gehiago bertaratu ziren.

Oso positiboak izan dira jendearengandik jaso diren balorazioak.

- Tomiris antzerkiari buruzko ekintzaren berri ere eman da. Ekintza hori abenduaren 17an egin zen, 19:00etan, Romoko RKEEn, euskaraz. Indarkeria matxistari buruzkoa izan zen, baina gizonezkoen ikuspegitik, haien eredu tradizionala eztabaidatuz eta berdintasunezko jarrerak eta portaerak garatuz.

40 pertsona baino gehiago bertaratu ziren, eta nahiz eta ekintza gizonezkoentzat bereziki izan, bertaratutakoen laurdena bakarrik izan ziren gizonak.

Emakumeen Bilguneak eskerrak eman du lan hori Getxora ekartzeko egindako esfortzua, izan ere, oso harrera ona izan zuen bertaratutakoen artean.

Martxoak 8

Berdintasun arloko teknikariak udala 8Mren kanpainan lan egiten ari dela jakinarazi du. Batzordea egin den egunean CORAL HERRERAREN hitzaldi bat proposatu da otsailaren 25erako. Coral erreferentea feminismoaren arloan, eta oso harrera ona izatea aurreikusten da.

Bilgune Feminista-ren aldetik MIREN GASTAÑAGAREN antzerkia proposatu da. Eta 8M honetarako ezin bada, beste kanpaina batzuetarako kontuan har dezatela.

Gainerako batzordeari astebeteko epea proposatzen zaio 8Mrako proposamenak bidal ditzan.

Bestalde, Roda elkarteko ordezkariak astelehenetan egiten duten solasaldia 8Mren kanpainan barne hartuko dutela adierazi du. Eskuz eskuz elkarteko ordezkariak kultura-irteera bat egingo dutela adierazi du.

Berdintasun arloko teknikariak dio urte honetarako, iaz bezala, mugimendu feministak greba orokorrerako deia egin duela. Horri dagokionez, Berdintasuneko zinegotziak dio udala ez zaiola atxikiko grebarik eta beraz, ez duela parte hartuko.

Galde-eskeak

ELAko ordezkariak elkarrekin Getxo Antzokiaren inauguraziorako sarrerarik izango duten galdetu du. Berdintasuneko zinegotziak oraindik noiz

inauguratuko den ez dakitela erantzun dio, ez eta zer inaugurazio-ekitaldi egingo duten ere.

Berdintasuneko teknikariak dio hurrengo batzordea martxoaren 14an izango dela, RKEn, 17:00etan, eta Kudeaketa Planaren betetze-mailaren berri ematen saiatuko dela.